

# ALBERTO BIREBEN



## † ILL ONEN 4<sup>AN</sup>

Gaur, penaz beterik donkidatzen degu oroitz maite bat, Alberto Bireben-en eriotz uste gabeen.

Bere ill berria alderatu zanean gu gana, ez ziran bitartean zortzi egun igaro, Ernaniko plazan euskaraz mintza zala, erri guzien aurrean, gure Lege-Zarrak goititurik, igande artako Euskal-festaren merioz.

Eta bear zan bezela ala adiarazi genduben jua dan illen 28ko liburuchoan.

Bireben izan zan, alde guzietan, adiskide onak maitatu zuten gizon ernea eta dontsua.

Ernaniko alkate naigarria; eta bere. sentsua eta bere biotz osoa iduki zituben, urtietan, bere erriaren gain: jorregatikan Ernanik Bireben-en doaia ipiñiko du, bere seme argidotar-en artian!

Len ezan degun bezela, itz abek antolatzen ari geran garaian, ez dira oraindik zortzi egun, egon giñala, azkenengo aldiz berarekin; eta abiyatu giñanean Donosti aldera, Ernaniko Euskal festa bukatu ondoren, luzatu zigun bostekua ezanaz:

—Agur, Mendiz-Mendi, nola egondu naiz gaur artzaldian ¿ondo?

—Bai, gizona, ederki; ezin obekiago: Euskal-erriko alkate jaun gu-

ziak, zuk bezela maite badute gure itzkuntza, Lege-Zarrak biurtuko dira berriro!

—Ori bear degu, ori; agur, ikusi arte— orrelarantzun zigun gure adiskide, Bireben-ek, eskua bizirotuaz.

¡Agur Bireben! Zu bezelase izan du dana seme ona eta guraso maitea eta adiskide guztiz naigarria, geyena aurreratuba daraina lur ontatikan utzi dezu be ontan, oroimengarri bat garbi garbia; ¡argatik, orain, beste bizitzan, artuko dezu, Jainkoak zuretzako gordeta zeukan, zedorrek irabazitako saria!

¡Ala izan dedilla!

MENDIZ-MENDI.

